

TOKIKO ENPRESEK KONTRATAZIOAK EGITEKO LAGUNTZA PROGRAMA, DONOSTIAN ENPLEGUA SORTZEA SUSTATZEKO, ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI EKINTZETARAKO 2022ko DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN BARRUAN (2022ko MAIATZAREN 20ko EHAA).

ATARIKOA

Donostia Sustapena SAK, Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietateak, besteak beste hiriaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzea du xede, batez ere kohesio eta jasangarritasun irizpideei jarraituz eta hiriko zenbait eragileretik eta horien arteko adostasun eta elkarlanetik, berrikuntzaren aldeko apustu garbia eginez hiria eraldatzeko eredutzat.

2011z geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori inplementatzeko urteko plana izan dute, Ekonomia Bultzatzeko Plana. Tresna hori sendotuta dago goranzko bilakaerari eta ezarritako helburuak betetzeari esker, eta, horri esker, hiriaren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egin ahal izan zaie, tokian-tokian nahiz globalki, azken 10 urteetan, lehiakortasuna eta posizionamendua areagotuz.

Pandemiaren eragin handiak markatutako 2021eko urte zaila emaitza onekin gairatu ondoren, Donostiako Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko Plan berria proposatu du 2022rako.

Donostiako Ekonomia Bultzatzeko 2022ko plan berriak bide berri bati ekin ahal izatea proposatzen du. Bide horrek, pertsonengan oinarritutako ekintzen bidez, aurrera jotzearen eta etorkizunari aurre egitearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, proiektu berritzaileen garapena babestuz eta proiektu horiei, talentuaren garapenari eta hiriari berari euskarri eman diezaieketen tokiko ekosistemaren funtsezko eragileekin sarean lan eginez.

Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorra eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko, 5 ardatzen bidez:

- **Donostia kohesionatua**, lan aukera berriak garatuz eta foku berezia jarriz zailtasun handienak dituzten kolektiboetan.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasunari gora eragingo dioten enpresa proiektuak bultzatuz.
- **Donostia** zerbitzu komertzialen hiritzat, kalitatezko merkataritza-ehun berritzailearen alde eginez.
- **Donostia Zientzia eta Berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoaren eredu gisa.
- **Donostia Hiri Eraldaketako** proiektu berrien abangoardian.

5 ardatz horien bitartez, Donostia Sustapenak hiria lehiakorragoa eta berritzaileagoa izatea nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko kohesio sozialaren aldeko hiri eredia indartuta.

Egungo testuinguruan, langabeziari dagokionez, krisialdi honek Donostiako langabezia tasan oraindik ere eragina duela nabarmentzen da: 2021eko abenduan langabezia % 8,32 izan da (% 7.61 gizonen kasuan eta % 8.99 emakumeen kasuan), 7.367 langabe zeuden erregistratuta, eta langabeziak goranzko joera du, batik bat, egoera ahulean dauden kolektiboetan.

Bestalde, datuak aztertuz gero, langabezia dauden pertsona gehienak luzaroko langabeak direla ikusten da (% 47.5), eta egoera hori bereziki areagotzen da helduenen eta emakumeen kasuetan. Donostiako langabeen % 56.8 45 urteko edo gehiagoko pertsonak dira, eta emakumeak dira horietatik % 56.4; emakumeak, gainera, gehiago dira langabeen kolektibo guztietan, salbu eta atzeritarren eta 30 urtetik beherako gazteen kolektiboetan.

Oinarri hauen bitartez eta, beraz, arestian deskribatutako ikuspegitik begiratuta, kontratazioa sustatzeko beharrezkoak diren estrategiak indartu nahi ditugu hirian egun dugun langabeziaren testuinguruan eta, zehazki, aipatutako xede kolektiboen testuinguruan. Horretarako, Donostia Sustapenak donostiarrek kontratatzeke deialdi hau jarri du abian.

Enplegua sortzea izango da ardatz estrategikoa, hiriaren eta hiri inguruaren garapen ekonomikoa lortzeko. Horregatik, Ekonomia Bultzatzeko Planak epe ertain eta luzera aplikatu beharreko hainbat neurri bultzatzen ditu, giza kapitalaren, enpresa lehiakortasunaren eta lurralde kohesioaren kontzeptuetan oinarritzen den estrategiaren barruan.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden **langabe** donostiarren **laneratzea bultzatzea**, lanerako gunea Donostiako udalerrian duten enpresetan, hainbat kolektibori zuzendutako askotariko laguntza moten bitartez.

a) Honako kolektibo hauetako langabeak kontratatzeke laguntzak:

- DSBE Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileak edo onuradunak.
- 35 urtetik beherakoak.
- Luzaroko langabeak: Luzaroko langabetzat hartuko dira kontratatua egin aurreko 540 egunetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun eman badituzte langabezia.
- 55 urtetik gorakoak.

b) Aurreko a) idatz zatian aipatzen diren kolektiboetakoak ez diren langabeak kontratatzeke laguntzak.

Horretarako, zenbateko desberdineko laguntzak sortu dira, lanaldiaren eta kontratuaren iraupenaren arabera, 4. artikuluko baldintzak betetzen dituzten jarduera ekonomikoko sektore guztiei zuzenduta.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Laguntza hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako dirulaguntzaren Oinarrien eta 2022ko azaroaren 8ko Ebazpenaren (enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2022ko dirulaguntzen deialdia) arabera arautzen dira, eta Donostia Sustapenak **ZAZPIEHUN ETA ZAZPI MILA EHUN ETA LAUROGEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (707.180,73 €) bideratuko ditu laguntzetarako.**

Donostia Sustapenak zenbateko hori aldatzeko eskubidea izango du, egoki iritzi gero.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduntzat hartuko da laguntza ematea eragin zuen jarduera egin behar duen pertsona edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, betiere Oinarri hauetan jasotako baldintza guzti-guztiak eta, bereziki, laguntza mota bakoitzari dagozkionak betetzen baditu.

Norbaitek baldintzaren bat betetzeari uzten badio edo horietakoren bat ez badu betetzen, onuradun izateari utz diezaioke, eta ezin izango ditu eskatutako laguntzak eskuratu.

Laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerritarrak, baita aurrekoen nortasunik gabeko taldeak ere, ordenamendu juridikoaren arabera balio osoz eratuta badaude; guztiek ere Oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Ez dira hor sartzen ondare sozietateak, 2/2014 Foru Arauaren (2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa) 14. artikuluan zehaztutakoaren arabera definitzen direnak.

Oinarri hauetan zehaztuko da laguntzak eskatzeko zer baldintza bete behar diren eta betetzen direla nola egiaztatu. Nolanahi ere, Dirulaguntzen Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, eta lege hori aplikatu beharrekotzat jotzen da, esanbidez.

Ezin izango dute laguntza jaso pertsona fisiko edo juridiko hauek:

- Indarrean dauden xedapenetan ezarritako zerga-betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituztenek.
- Ebazpen irmo baten bitartez dirulaguntzak eta/edo laguntzak jasotzeko aukera kentzen dien zehapena jaso dutenek, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenek; hor sartzen dira sexuak eragindako diskriminazioa egiteagatik zigortutakoak ere, betiere Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak dituztenek.
- Aurretik emandako laguntzak, osorik edo zati batean, itzuli gabe dituztenek, itzuli beharreko zenbatekoaren diru sarrera egin dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu

ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten ez badu; kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei prozedura hau ebazteko eta ordaintzeko informazio hau:

- Udalarekiko eta Donostiako Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) historikoa
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketan egunean egotearen ziurtagiriak.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Tokiko enpresatzat hartuko dira lantokia eta jarduera ekonomikoa Donostiako udalerrian duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

Ezin izango dira onuradun izan:

- Ezin izango dira onuradun izan. Sektore Publikoan sartzten diren erakundeek (halakotzat hartuko dira 9/2017 Legearen –9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora– 3. artikuluan jasotako erakundeak), irabazi asmorik gabeko erakundeek, lanbide elkargoen eta/edo lanbide elkargoen mendekoak diren edo erakunde horien partaidetza % 25ekoa edo handiagoa duten erakundeak.
- Aldi baterako laneko enpresak.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Langabe donostiarrei egindako kontratuak, pertsona horien **laneratzea bultzatzeko**, lanerako gunea Donostiako udalerrian duten enpresetan.

Eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa eta diruz lagun daitezkeen gastuak honako hauek izango dira:

5.1 Honako kolektibo hauetako langabeak kontratatuzko laguntzak:

- ✓ DSBEaren hartzaile titularrak edo onuradunak.
- ✓ 35 urtetik beherakoak.
- ✓ Luzaroko langabeak. Luzaroko langabetzat hartuko dira *kontratatu egin aurreko segidako 540 egunetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun eman badituzte langabezia.*
- ✓ 55 urtetik gorakoak.

- a. Gehienez ere HAMAR MILA (10.000,00 €) EUROKO laguntza, lanaldi osoko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- b. Gehienez ere BOST MILA (5.000,00 €) EUROKO laguntza, lanaldi erdiko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- c. % 50etik gorako lanaldiak dituzten kontratazio MUGAGABEEN kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko muga) lanaldiarekiko proportzionala izango da.

Kolektiboari zuzendutako laguntza guztietan, behin betiko zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren soldata kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 100a; hor sartzen dira kontratu amaierako kalte ordainak, eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kuota, dagozkion hobariak eta/edo kenkariak deskontatu ondoren.

5.2 Aurreko a) idatz zatian aipatzen diren kolektiboetakoak ez diren langabeak kontratatzeko laguntzak.

- a. Gehienez ere ZORTZI MILA (8.000,00 €) EUROKO laguntza, lanaldi osoko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- b. Gehienez ere LAU MILA (4.000,00 €) EUROKO laguntza, lanaldi erdiko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- c. % 50etik gorako lanaldiak dituzten kontratazio MUGAGABEEN kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko muga) lan egindako lanaldiaren proportzionala izango da.

Kolektiboetako kide ez diren pertsonak kontratatzeko laguntza guztietan, behin betiko zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonen soldata kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75a; hor sartzen dira kontratu amaierako kalte ordainak, eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren kuota, dagozkion hobariak eta/edo kenkariak deskontatu ondoren.

Goian deskribatutako **diru kopuru guztiak % 10ean handituko dira kontratuak emakumeei egiten zaizkienean**. Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoak –igoera horiek aplikatuta– ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata kostuen % 100a, enpresa kontratatzaileak Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egin beharreko kotizazioa barne.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZAN SARTZEN DIREN KONTRATAZIOEN BETEKIZUNAK

Lan kontratuak honako gutxienerako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) **Kontrataturako pertsonak langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa erregistratuta egotea.** Erregistroaren datak lan harremana hasten den eguna baino lehenagokoa izan behar du. Langabeek ez dute alta egoeran egon behar, ez Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko langile gisa, ez Langile Autonomoen Erregimen Berezian, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunetik.

- b) Kontratazioaren beharra Oinarri hauetako 5. artikuluan jasotako modalitatearen batekin bat etortzea, eta lan harremana **2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitarte** hastea.
- c) Kontratatuak diren pertsonak **Donostian erroldatuta** egotea, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunean. Lan harremana hasi aurreko segidako egunean eta, gutxienez, egun berean erroldatuta daudela egiaztatzen dutenak baino ez dira aintzat hartuko. Erroldako helbideak ez du izan behar erakunde kontratatzailearekin (onuraduna) edo harekin lotutako beste edozein erakunderekin (artikulu horretan ezarritako baldintzetan) 2/2014 Foru Arauaren (2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa) 42. artikuluan aurreikusitako moduko loturaren bat duen pertsona fisiko baten bizilekua. Era berean, eta betekizun hau betetze aldera, ez dira kontuan hartuko kontratatu beharreko pertsonak Donostian aldeztu aurretik izan dituen erroldatzeak, edozein arrazoiengatik eten direnak.
- d) Lanpostuak lotura zuzena izatea enpresak egiten duen jarduerarekin.
- e) Laguntzaren xede den kontratua egin zaion pertsonaren lantokia Donostiako udalerrian egotea.
- f) **Lan kontratua 12 hilabetez, gutxienez, indarrean egotea.**
Lan harremana dirulaguntzaren xede den aldia baino lehen amaitzen bada, laguntza ezetsi egingo da, salbu eta lan harreman hori arrazoi objektiboengatik edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik amaitu bada; kasu horretan, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, lan kontratuaren benetako iraupenaren arabera.

Enpresa kontratatzaileak, enpresaren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik kontratua iraungi zaion pertsonaren ordezkatzeko aukera izango du. Programaren oinarri arautzaileetan eskatutako baldintzak betetzen dituen beste pertsona bat jarri beharko du eta 30 egun naturaleko epea izango du kontratu mugagabe berri bat formalizatzeko, Gizarte Segurantzaren baja ematen den egunetik zenbatzen hasita.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak bere horretan jarraituko du, baldin eta bi kontratazioen aldien batura gutxienez 12 hilabeteko epera iristen bada.

Nahitaez jakinarazi beharko da kontratu berria, Gizarte Segurantzaren alta eman eta gehienez ere 15 eguneko epean. Ondoren, Donostiako Sustapenak jakinaraziko du zer izapide egin behar dituen enpresak dirulaguntzari eutsi ahal izateko.

- g) **Kontratazioek enplegu sorrera garbia ekarri beharko dute**, diruz lagundutako kontratua duten pertsonak lanean hasi aurreko segidako SEI (6) HILABETEetan enpresak izan duen batez besteko plantilla osoaren gainean.

Hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da dirulaguntzaren xede den kontratazioaren egunean alta egoeran dauden langileen batez besteko plantilla handiagoa izatea kontratazioaren egunaren aurreko SEI (6) HILABETEETAN altan dauden langileena baino. Hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzak egindako bi txosten aurkeztu beharko dira, "Altan diren langileen batez besteko plantillari buruzko txostena", hain zuzen, bata kontratuaren egunaren aurreko SEI (6) HILABETEei dagokiena eta, bestea, dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren egun berekoa.

Adibidez: 2022ko ekainaren 15ean egindako kontratu baten plantillaren gehikuntza garbia egiaztatzeko aurkeztu beharreko txostenak honako hauek izango lirateke:

- 1. 2021eko abenduaren 15etik 2022ko ekainaren 14ra bitarte altan diren langileen batez besteko plantillari buruzko txostena.*
- 2. 2022ko ekainaren 15etik 2022ko ekainaren 15ra bitarte altan diren langileen batez besteko plantillari buruzko txostena.*

h) Kolektiboetako kide diren langabeei egiten zaizkien kontratazioek mota hauetakoren batekoak izan beharko dute:

- DSBE Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileak edo onuradunak.
- Kontratuaren egunean 35 urte baino gutxiago dituzten pertsonak.
- Luzaroko langabeak: Luzaroko langabetzat hartuko dira kontratatua egin aurreko 540 egunetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan "enplegu eskatzaile" gisa izena emanda egon diren langabe enplegu eskatzaileak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun eman badituzte langabezia.
- Kontratuaren egunean 55 urte baino gehiago dituzten pertsonak.

Kontratazio hauek ez dira diruz lagunduko:

- Lanaldia % 50 baino txikiagoa duten kontratuak.
- Lanaldia aldatu zaien kontratuak, hasieran kontratatutako lanaldia baino handiagoa izateko aldaketak direnean izan ezik.
- Oinarri hauetako 5. artikuluan deskribatutakoa baino aldi edo iraupen laburragorako egiten diren kontratuak.
- Onuradunarekin 2/2014 Foru Arauaren (2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa) 42. artikuluan aurreikusitako moduko loturaren bat duen pertsona fisiko bati egindako kontratua.
- Onuradunaren ezkontideari, izatezko bikotekideari (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteen kasuan), bigarren mailako aurreko, ondorengo edo alboko ahaideei –dela ahaidetasunean, odol ahaidetasunean, ezkontza ahaidetasunean, izatezko bikotea eratzetik edo adopzioetik ondorioztatzen den harremanaren ondorioz– egindako kontratua, edo onuradun horrekin lotutako pertsonatzat hartzen direnei, betiere 2/2014 Foru Arauaren (2/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa) 42. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako moduko loturaren baten arabera.
- Deialdi honetan nahiz enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen aurreko deialdiren batean enpresa bererako pertsona bat kontratatzeko laguntzaren bat lehendik jaso duten pertsonen lan kontratazioak.
- Ez dira onartuko aldizkako kontratu finkoak, ezta aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea ere.

Gehienez 2 laguntza eman ahal izango dira onuradun bakoitzeko.

Laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, emandako zenbatekoaren % 100ean, honela:

- **2022/01/01etik 2022/06/30era bitartean hasitako kontratueterako**, laguntzaren % 100 kontratazioaren lehen 12 hilabeteen ondoren egin beharko den justifikazioaren ondoren ordainduko da.

- **2022/07/01etik 2022/12/31ra bitartean hasitako kontratueterako**, ordainketa bakarra egingo da, kontratazioaren lehen 6 hilabeteen ondoren aurkeztu beharko den lehen justifikazioaren ondoren. Kontratazio horiek bigarren justifikazio bat ere aurkeztu beharko dute, kontrataziotik 12 hilabetera. Garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, edo oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ez direla ikusten bada, onuradunak jasotako ekarpen osoa itzuli beharko du.

Nolanahi ere, Donostia Sustapenak edozein dokumentazio edo informazio gehigarri eskatzeko eskubidea izango du, aurreko baldintzetako edozein betetzen dela egiaztatzearen.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauek ematea ez da bateragarria izango edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatu nazionalek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, gizarte segurantzako hobariekin izan ezik.

Oinarri hauetan ezarritako laguntzek 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako "minimis" arauak bete behar dituzte –1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Batzordearena, 2013ko abenduaren 24an EBAOn argitaratu zena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa–.

Oinarri hauetako 5. artikuluan jasotako gastu kontzepturen baterako laguntza jaso bada, ezin izango da laguntzarik eskatu, ezta kontzeptu horretan sartutako gasturik justifikatu ere.

8. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak aurkezteko epea honako hau izango da: **Oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta laguntza honetarako baliabide ekonomikoak agortu arte** (kasu horretan, agortu izana Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) **edo, bestela**, deialdia amaitu arte, hau da, **2023ko urtarrilaren 31ra arte**.

Eskaera egiteko epea amaitu ondoren, soberakinik badago edo zuzkidura ekonomikoa handitzen bada, eta, Donostia Sustapenak egoki baderitzo, eskaera egiteko epea luzatu ahal izango du oinarri hauek aldatuz (kasu horretan, dagokion kanaletan argitaratuko da).

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu beharko dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bitartez (www.fomentosansebastian.eus).

Ezohiko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, eskaera Sustapenaren Atariaren bitartez egin ezin bada, Sustapenak berak baimentzen duenean eskaera egiteko beste bide bat eskainiko da.

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta eranskinetako orrialde guztiek egon behar dute sinatuta. Atxiki beharreko agiriak sinatu egin behar badira, sinadura digitala erabili beharko da.

Informazioa emateko edo kontsultaren bat egiteko, deitu telefono zenbaki honetara: 943 482800; bestela, idatzi helbide elektronikoa honetara: fomentoss@donostia.eus, eta mezuaren gaian zehaztu honako hau: "KONTRATAZIOARAKO LAGUNTZAK 2022"

Jendeari arreta emateko ordutegia Donostia Sustapenaren webgunean zehaztuta dago.

Dirulaguntza hau eskatu nahi duten enpresa edo erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

ERANSKINAK:

1. **Eranskina: "Eskaera"** orria.
2. **Eranskina: "Bankuko datuak"** orria, dagokion bankuaren zigiluarekin. Bankuko datuak eranskina edo horren baliokidea den banku agiria
3. **Eranskina: "Kontratazioaren datuak"** orria

ENPRESAREN AGIRIAK:

4. **Eskatzailearen NAN**aren kopia, pertsona fisikoa izanez gero.
5. Pertsona juridikoa baldin bada, **eskatzailearen IFK**ren kopia eta, hala badagokio, sinatzailearen NANA.

KONTRATAZIOAREN AGIRIAK:

6. **Lan kontratuaren kopia**; honako datu hauek jaso behar ditu: lanpostua, iraupen MUGAGABEA, lanaldia eta lantokia.
7. **Lan kontratu MUGAGABEA**ren jakinarazpena, egingo den lana jasotzen duena.
8. **Kontratututako pertsonaren NAN / AIZ** kopia.
9. Lanbidek egindako **"Inskripzio-aldien ziurtagiria"** agiria, kontratazioa hasi osteko data duena.
10. **Langilearen Lan Bizitza osoa**, Gizarte Segurantzak egindakoa, dirulaguntzaren xede den kontratua hasi osteko data duena.
11. **Errolda ziurtagiria**, Donostiako Udalak egindakoa kontratuaren subjektu den pertsona kontratatu den egunaren osteko data duena, edo Donostia Sustapenari baimena ematea ziurtagiria eskatzeko.
12. Altan diren langileen **batez besteko plantillari buruzko txostena**, Gizarte Segurantzak egindakoa, **kontratazioaren egunaren aurreko sei hilabeteei dagokiena**.

13. Altan diren langileen **batez besteko plantillari buruzko txostena**, Gizarte Segurantzak egindakoa, **kontratazioaren egunari dagokiona**.
14. Kontratua **Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrei edo onuradunei egiten bazaie**, **Lanbidek egoera hori egiaztatzeko egindako ziurtagiri bat** aurkeztu beharko dute.

Aurreko 1. puntutik 6. puntura bitarte aipatutako dokumentazioari dagokionez, baldin eta pertsona edo erakunde eskatzaileak aurretik agiri horietakoren bat aurkeztu badu 2018. urteaz geroztik Donostia Sustapenaren laguntza programaren batean parte hartu duelako, ez du berriro aurkeztu beharko lehendik aurkeztutako dokumentazioa, betiere indarrean jarraitzen badu eta/edo aldaketarik izan ez badu.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizun osoa.

9. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio guztia aztertu eta bete gabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten badu, eskatzaileari akatsa zuzen dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio, betiere hamar egun balioduneko epean, eta, hala egin ezean, eskaera hori besterik gabe baztertu egingo dela adieraziko zaio, eta, beraz, horri dagokion ebazpena emango dela. Administrazio agiriak zuzendu ahal izango dira, baita laguntza mota bakoitzari dagokion dokumentazio espezifiko ere. Gainera, egoki irizten dionean, Donostia Sustapenak eskubidea izango du pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako edozein agiri edo informaziori buruz egoki irizitako azalpenak eskatzeko.

Onuradunak harremanetarako email gisa (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa) ematen duen helbide elektronikoaren bitartez jakinaraziko dira zuzenketa. Nolanahi ere, web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira jakinarazpenak, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Zuzenketa egiteko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliz aurkeztuko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko. Laguntzak Donostia Sustapenak berriaz emandako ebazpen bitartez eman edo ukatuko dira.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Eskaerak erregistratzeko hurrenkeraren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, Oinarri hauetako 2. artikuluaaren arabera laguntza honetara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea lau hilabetekoa izango da, eskaera erregistratzen den egunetik hasita; epe horren barruan ez dira sartzen administrazio agiriak zuzentzekoaldiak. Laguntza emateko ebazpena ez bada zehaztutako epean ematen, horrek ez du esan nahi laguntza emango denik.

Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea HIRUROGEI (60) EGUN naturalekoa izango da, dirulaguntzaren xede den aldia (12 hilabete) amaitu ondoren. Epe hori laguntzaren lehen ordainketaren ondoren emandako ebazpenean zehaztuko da.

Epe horiek edo Oinarri hauetan ezarritako edozein betekizun eta baldintza betetzen ez bada, laguntza ezetsi egin dela ulertuko da, eta Donostia Sustapenak ahalmena izango du onuradunari emandako zenbateko guztiak itzul ditzan eskatzeko, 13. klausulan ezarritakoaren arabera.

Lehenengo JUSTIFIKAZIOAN aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da: (justifikazio hori 2022/07/01 eta 2022/12/31 bitartean egindako kontratazioek bakarrik aurkeztu beharko dute)

- 1 Eranskina: "Ordainketa Eskaera"
- 2 "Kontratutako pertsonaren afiliatu baten lan-bizitzari buruzko txostena", laguntzaren xede den epean eta lanaldian enpresan jarraitzen duela egiaztatzen duena.
- 3 Kontratutako pertsonaren **Kotizaziorako Datuen Txostena**, Besteren Konturako Langileak (IDC), justifikazio-aldia barne hartzen duena.

Azken JUSTIFIKAZIOAN aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da: (justifikazio hori diruz lagundutako kontratu guztiek aurkeztu beharko dute)

- 1 "Kontratutako pertsonaren afiliatu baten lan-bizitzari buruzko txostena", laguntzaren xede den epean eta lanaldian enpresan jarraitzen duela egiaztatzen duena.
- 2 Kontratutako pertsonaren **Kotizazio Datuen Txostena** - Besteren Konturako Langileak (KDT), justifikazio aldi osoari dagokiona.
- 3 **Justifikazioa eranskina**: dirulaguntzaren xede den aldian izandako kostu efektiboa (nomina eta gizarte aseguruak) laburbiltzen duen finantza memoria sartu behar da barruan, eta xede bererako beste laguntzarik jaso edo eskatu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena.
- 4 **Nominen eta gizarte aseguruaren eta horien ordainketen kopia**. (Langileak sinatutako nominak ordainagiriaren parekotzat jotzen dira).

Agiriak telematikoki aurkeztu behar dira, eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliz. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko.

12. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek beren gain hartuko dituzte DLOaren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak; kasu honetan, lege hori aplikatu beharreko zatitza jotzen da. Hona hemen betebeharrak (zerrenda ez da mugatzailea):

- a) Laguntza diruz lagundutako jarduerak egiteko erabiltzea.
- b) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta epean.
- c) Jasotako laguntzak aplikatu direla egiaztatzen duten agiriak gordetzea, egiaztatzeko eta/edo ikuskatzeko jardueren xede izan daitezkeen bitartean, eta, betiere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean.
- d) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta dirusarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak izatea.
- g) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein gorabehera subjektibo zein objektiboren aldaketaren berri Donostia Sustapenari ematea.
- h) Donostia Sustapenak, bere eginkizunetan diharduela, emandako laguntzei buruz eskatzen duen informazio guztia ematea.
- i) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderik jasoz gero, Donostia Sustapenari jakinaraztea.
- j) Jasotako laguntzekin lotuta, Donostia Sustapenak antolatu ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).
- k) Laguntzaren xede den eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabarren berri ematea Donostia Sustapenari. Kasuan kasu, Donostia Sustapenarekin lankidetzan aritzea finantza kontrolerako eta egiaztapenerako egin ditzakeen jardueretan, eta eskatzen dion informazio eta dokumentazio guztia eskaintzea.
- l) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- m) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzea.
- n) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazioko euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mezu elektronikoak, megafonia, etab.), sustapeneko eta ezagutarazteko materialak editatzean, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, etab.
- o) Erakunde eskatzaileek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari testuak itzultzeko eta zuzentzeko (hilean gehienez 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>).
- p) Erakunde eskatzaileek beren ekintzekin berariaz ikusarazi beharko diete onuradunei eta, oro har, herritarrei Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako ekarpena.

13. ARTIKULUA. ITZULTZEA

Jasotako ekarpena itzuli beharko du onuradunak, gehi diruaren legezko interesa –emandako zenbatekoak ordaintzen diren unetik–, honako kasu hauetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat eta/edo behin eta berriz egindakotzat joko da oinarri hauetan aurreikusitako betebehar bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentazioen bat gezurrezkoa edo faltsua izatea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat

aurreikusitakoez bestelako helburu baterako desbideratzea.

- Ekarpena Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan erabili izana epe barruan justifikatzeko betebeharra edo Oinarrietan ezarritako edozein betekizun eta betebeharrak ez betetzea, baita justifikazioa eskasa izatea ere.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin daitezkeen egiaztatzeko eta ikuskatzeko jarduketan kasuan, aurre egitea, aitzakiak jartzea, eragoztekoa edo uko egitea, bai eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenak zertarako erabili diren, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak jaso izana nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik.
- Jarduera gainfinantzatzuz gero, gastatu gabeko edo gainfinantzatzutako zenbatekoa.
- Kontratua deuseztatzea, objektibotzat jotzen ez diren edo enplegatzaillearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Aurreko guztia kontuan hartuta, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren betekizunak bete egin behar dira eta betetzeari eutsi behar zaio uneoro. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzeko eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze kasu larrienenetan, hala nola datuak faltsutzen direnean edo jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzen denean, Donostia Sustapenak emandako laguntza baliogabetzeko ahalmena izango du eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzultzeko eskatzeaz gain, jasotako zenbatekoaren boskoitza ordaintzeko ere eskatu ahal izango du.

Ekarpena itzuli egin beharko da, eta Donostia Sustapenak egiaztatu beharko du Oinarri hauetan ezarritako kausaren bat gertatu dela, eta onuradunari jakinarazi jarraian deskribatutako baldintzetan.

Ekarpena laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean itzuli beharko da, betiere Donostia Sustapenak, burofax bidez, artikulua honetan aurreikusitako itzulketa arrazoiren bat betetzen dela onuradunari jakinarazten dionetik kontaktzen hasita.

Era berean, eta aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Donostia Sustapenak eskubidea izango du Donostia Sustapenak eskaintzen dituen beste edozein laguntza edo onuratan parte har dezaten eragozteko, BI (2) URTEZ, Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat modu arduragabean bete ez duten edo fede onaren funtsezko arauak urratzen dituzten jokabideak izan dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

14. ARTIKULUA. KOFINANTZAKETA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu laguntza hauek, Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako 2022ko Laguntzen Deialdiaren esparruan; laguntza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onetsi ziren 2022ko ekainaren 15ean, 2022ko maiatzaren 20ko EHAA argitaratu zen eta 2022ko azaroaren 8an eman zen onesteko Ebazpena.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, Oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileari jakinarazten zaio dagokion eskaeraren bitartez ematen dituen datu pertsonalak eta laguntzak izapidetzen diren bitartean eta/edo horiek kudeatzen diren bitartean aurkeztutako beste edozein dokumentazio Donostiako Udalak gordeko dituela, tratatzeko; izan ere, Donostiako Udala izango da datu tratamenduaren erantzule, eta Donostia Sustapenak kudeatuko ditu datu horiek, tratamenduaren arduradun del aldetik. Tratamenduaren helburua eskaera kudeatzea eta laguntza horiek izapidetzea izango da.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria honako arau hauek dira: 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua (2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio libreari dagokionez (DBEO): tratamendua beharrezkoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak baliatzean egindako zeregin bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo dagozkion eskaera orrietan hala adierazten denean, eskatzen diren datu pertsonalak ematea derrigorrezkoa izango da, eta informazio hori ematen ez bada edo datu okerrak ematen badira, ezin izango da eskaera kudeatu.

Datuak gorde egingo dira, bildu zireneko helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie laguntza horiek kofinantzatzen dituzten edo/eta Donostia Sustapenarekin elkarlanean kudeatzen dituzten nazioko edo nazioz gaindiko erakundeei, beharrezkoa denean eta laguntzak ematea kudeatzeko soilik.

Era berean, jakin beharrezkoa da laguntzak emanez gero onuradunaren identifikazio datuak jakinarazi edo lagako direla; horretarako, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere, baina, azken kasu horretan, emandako laguntza 3.000 eurotik gorakoa baldin bada edo, zenbatekoa edozein dela ere, hori egin behar baldin bada soilik.

Eraginpeko pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, baita datuak babesteko indarreko araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, hala dagokionean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan: Easo kalea 40, 20003 Donostia.

Zure eskubideak baliatzean ez bazaituzte behar bezala artatu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, lehen auzialdian, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diozu Donostiako Datuak Babesteko ordezkariari: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, ohartarazten da eskatzaileak, eskaera aurkezten duelarik, berariaz onartzen dituela aurreko paragrafoetan adierazitakotik ondorioztatzen diren datuen jakinarazpen edo lagapenak.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez iragarriko dira, eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesdunek eskaera aurkezteak Oinarriak erabat onartzea dakar.

Erantzukizunetik salbuestea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondoko jarduketan ondorioz edo jardueraren ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzek Oinarri hauetan jasotako arauak bete beharko dituzte, eta, osagarri gisa, DLOan eta hori garatzen duen Erregelamenduan –Erregelamendu hori Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua (aurrerantzean, DLOE) onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsi zen– jasotako arauak, baina soil-soilik DLO horretako kudeaketa printzipioei eta DLOaren 20. artikuluan aipatzen diren informazio printzipioei dagokienez, betiere lege horretako 3.2 artikulua bigarren paragrafoari jarraikiz, printzipio horien aplikazioa zehazten duen aldetik. Horietaz gain, Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako 2022ko Laguntzen Deialdiako arauak ere bete beharrekoak izango dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendariak 2022ko azaroaren 27an onesteko Ebazpena eman zuenez.

Bestela, aipatutako DLOa eta DLOEa aplikatu beharrekoak izango dira, baina soilik Oinarri hauek lege testu horiei berariaz atxikitzen zaizkienean.

Donostia, 2022ko azaroaren 8a.

Marisol Garmendia Beloqui.

Ekologia, Osasun Publiko, Garapen Ekonomiko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria.